

UDAL HAUTESKUNDEAK MAIATZAREN 25EAN

Txema Mercado da EB-IUko zerrendaburu eta Pedro Gandasegi PPkoa

■ Txema Mercado lehena da EB-IUko zerrendetan aurkeztu dela eta oraingo egoera politikoan pakea eta elkarrizketaren alde egin behar dela dio ■ Pedro Gandasegi PPko zinegotzia da Pasaian.

UDAL hauteskundeak inguratu ari dira eta alderdi politikoek aurkeztu dituzte beren zerrendak. EB-IUk Txema Mercado aurkeztu du buru eta Jexux Uzkudun, Karlos Quintana, Mari Jose Sanchez eta Marcelo Usabiaga daude zerrendan, besteak beste. PPko zerrendaburu, berriz, Pedro Gandasegi donostiarra aurkeztuko da. Gandasegi PPko zinegotzi da orain Pasaiaiko Udaltxean. Zerrendan hurrenez hurren Juan de Dios Davila eta Jose Fernandez daude.

Pakea eta elkarrizketa


Txema Mercado EB-IUko zerrendaburuak Kronikari esan dionez, pakea eta elkarrizketaren alde egiteko beharrak bultzatu du hauteskundeetan aurkeztera eta zentzu horretan

bere egiten ditu proiektu, idea eta pertsona guztien alde azalduko iritzi eta ekimenak. Gaur egungo egoera politikoan pakea eta elkarrizketaren alde egingo duen jendea toki guztietan egotea beharrezko jotzen du Mercado eta hori izango da bere helburu nagusietako bat Kronikari esan dionez.

Pedro Gandasegi donostiarra da bestalde PPko zerrendaburu Hernaniko Udalerako, baina, Hernaniko Kronikari ez du berekin hitz egiterik lortu.

Zerrendak aurkeztuta

Bukatu da Udal Hauteskundeetarako zerrendak aurkezteko epea eta Hernanin 5 kandidatura aurkeztu dira. Bildu Hernaniko zerrenda-



Txema Mercado Hernaniko IUko zerrendaburu.

buru Mertxe Etxeberria da; EA-EAJkoa, Joxan Reondo; PSE-EEkoa, Jose Morcillo; PPkoa, Pedro Gandasegi; eta EB-IUkoa Txema Mercado. □

Uraren tuberia puskatuta freskatu ederra hartu zuen Larramendi kaleak atzo arratsaldean

ATZO arratsaldeko seiak inguruan uraren tuberia puskatu eta festa polita jarri zen Larramendi kalean. Arketa berria jartzen ari dira aparkalekurako sarrera horretan eta uraren pasoa ixten duen giltza ere berrietzekoa dute. Dirudenez, ume koskorren batek baila pasa eta ostikoka puskatu zuen giltza eta 5 zentimetro inguruko zuloa egin zion tuberiari. Ur txorota 19:00ak inguruan itxi zuten Udaltzainek. Arketa berria jartzeko gaur goizean ura kentzekoa zuten Larramendi kaleko zenbait portaletan, baina, ezbeharrak medio atzo arratsaldetik gaur 12:00ak arte egongo da itxita. □



Ur txorota presio handiarekin ateratzen zen atzo.

PLENOA GAUR

Atsegindegiko obrak konkurtsora

PLENOA dago gaur Udaltxean, arratsaldeko 19:00etan eta puntu garrantzitsuak eztabaidatuko dituzte. Seigarren puntuak Atsegindegiko aparkalekuak lehiaketa publikora ateratzeko baldintzak dira. Atsegindegin lur azpiko 180 aparkaleku egiteko asmoa dago, hiru pisutan, eta obrak lehiaketa publikora ateratzea eztabaidatuko da gaur plenoan.

Beste zenbait puntu

3) Hitzorduak taldearen mozioa. Hitzorduak proiektu, idea eta pertsona guztien askatasuna aldarrikatzeko mozioa auzuetako du, Hernaniko 633 herritarrek sinatua. Hitzorduak taldeak dei egin die mozioa babesten duten herritarrei plenoan azaltzeko.

4) Animaliak edukitzea arautzen duen Udal Ordenantza.

9) Txantxilako hirigintza hitzarmena. Txantxilan 140 etxebizitza inguru egitea aurreikusten da, besteak beste, eta horren bueltako lehen hitzarmena eztabaidatuko da gaur.

11,7,8) Ongintza Patronatutik Udalera transferitutako zerbitzuak Udalak hartzea: Berdintasun saila, Kontsumitzaileen bulegoa eta Gazte Informazio bulegoa, informatika aretoa eta Enplegu Sustapen eta Formazio saila. Ongintzako egoitza eta Milagrosa Ongintza Patronatutik Udalera pasatzea ere gaur hitzegin dute.

14) Etxerat elkarteari hitzarmena sinatzea. Etxerat elkarteari hainbat alorretan laguntzeko (lege aholkularitza, aholkularitza psikologikoan eta abar) diru laguntza ematea aurreikusten du hitzarmenak. □

Olio erabilia biltzeko eguna gaur

GAUR bilduko dituzte etxeetako olio erabilia eta kontainerretera atera behar ez diren bestelako gaiak, ferian, Urbieta kalean. Ordutegia arratsaldeko 16:00etatik 19:30etara, kiroldegiko frontoi ondoan. □

U
S
U
R
B
I
L

Z I H A R D U T E N E A N D I H A R D U G U
J E X U X A R T Z E G O G O A N

Apirilak 22 - maiatzak 4
EZ DOK AMAIRU erakusketa
Udarregi Ikastolan

Apirilak 25, ostirala, gaueko 10:30etan
BENITO LERTXUNDI - "Nere ekialdean"
Kiroldegian

Sarrerak salgai: LETE Liburudendan

K
U
L
T
U
R
H
A
M
A
B
O
S
T
A
L
D
I
A

GALARRETA JAI-ALAI



Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

GAUR 16:00ETATIK AURRERA

ERREMONTA JAIALDIA:

1. partidua: Juaristi - Olazar / Iturralde - Urrutia
2. partidua: Ezkurra - J.Etxeberria / Altuna II - Lizaso
3. partidua: Altuna I - Aizpuru / Zeberio II - Etxeberria II
4. partidua: Zeberio I - Badiola / Iribarren - Urko

ANTZERKIA GAUR HERNANIN

'Biblia osoa... gutxi gorabehera' gaur Biterin, Euskal Herriko 90 plaza bete eta gero

- Niko Lizeaga, Mikel Laskurain eta Joxan Bengoetxeak antzeztuko dute obra.
- Biteriko Areto Nagusian izango da gaur, 20:00etan ■ Sarrerak 4,5 euroan.

KANPINGAGS eta Txalo taldeen eskutik, *Biblia osoa... gutxi gorabehera* antzezlana izango da gaur, Biteri kultur etxean. Ordu eta erdian, Niko Lizeaga, Mikel Laskurain eta Joxan Bengoetxea antzezleek Testamentu Zaharra eta Berriari errebaso xebe bat emanango diote, eta bakoitzak Bibliako dozena bat pertsonajeren papera egingo du.

Hiru antzezleak apaiz bezala aurkeztuko dira hasieran. Hiru apaizek aspaldian daukaten kezka da, Biblia ez duela jendeak behar bezala ulertzen, eta horregatik liburu bat idatzi

dute Bibliako pasarte jakin batzuen argibideak ematen dituen. Antzerkian, liburu hori ikusleari saltzen saiatuko dira.

'Shakespeare osoa...' lanaren jarraipena

Gaur Biterin ikusi ahal izango dugun antzezlana beste obra baten ondotik sortutakoa da: *Shakespeare osoa... gutxi gorabehera* antzezlantetik hain justu. Obra harek izan zuen arrakasta ikusita, idea berdinari jarraitu zioten egileek eta bigarren emanaldia sortu zuten.

Egileak Axier Ormaza, Joseba Apaolaza eta Patxi Barko

dira, baina, antzezten 7 lagun aritzen dira, txandaka. Gaur Niko Lizeaga, Mikel Laskurain eta Joxan Bengoetxea izango dira (ez atzo Kronikan atera bezala).

Arrakasta izugarria

Uztailean estreinatua zenetik 90 plaza pasa ditu gaur Biterin ikusi ahal izango den obrak. Arduradunen hitzetan arrakasta izugarria izan du leku guztietan eta batzuetan bigarren aldiz ere egin behar izan omen dute.

Gaur 20:00etan, Biterin. Txartelak 4,5 euroan.

NIKO LIZEAGA ETA MIKEL LASKURAIN - ANTZEZLEAK

"Hernanin antzezteak oso pozgarria da guretzat eta normalean baino tentsio puntu haundiagoa beharko dugu"

- Niko Lizeaga eta Mikel Laskurainek "antzerki funtsean dibertigarri" bezala definitu dute 'Biblia osoa...' antzezlana, eta arrakasta handia ari omen da izaten.

NIKO Lizeaga hernaniarra da eta Mikel Laskurain Hernanin bizi da, aspaldi. Gaurko obra antzeztuko duten hiru artistetako bi izanik, Kronikak berangana jo du, emanaldiaren nondik norakoak jakin asmoz.

■ Nola definituko zenukete gaurko obra?

LIZEAGA: Funtsean antzezlana dibertigarria egitea zen helburua eta esan liteke ondo lortzen duela nahi zena. Jendeak oso ordu eta erdi atsegina pasatzen du.

LASKURAIN: Biblia jende gehienak ezagutzen du, era batera edo bestera, eta antzerkia hortan oinarritzeak aukera handia ematen du jendeari parre egin arazteko.


■ Testamentu Zaharra eta Berria nola tratatzen dira?

LIZEAGA: Bi testamentuetako pasarte ezagunenak aukeratu dira, kritikarako inongo intenziorik gabe baina, grazi puntu haundienarekin.

LASKURAIN: Antzezle bakoitzak 12na pertsonajeren papera egingo dugu, adibidez: Adan, Eba, Moises, Abraham, Sanson, Noe eta Jesusen bizitza jaiotzetik hiltzeraino.

■ Antzezteko obra erreza al da zeuzentzat?

LASKURAIN: Interpretazio



Niko Lizeaga eta Mikel Laskurain, Plaza Berrian.

aldetik ez dauka zailtasun gehiegi baina, erritmo eta kontzentrazio maila handia exijitzen du. Jendeak pentsa lezake: "ze ondo pasatzen ari diren!". Bene-benetan, ordea, oso kontzentratuta egon beharra daukagu, gehienbat, detaile askoko obra delako.

■ Hernanin antzezteak zer suposatzen dizue?

LIZEAGA: Gutxitan tokatzen zaigu Hernanin antzezteak, eta gaurkoa oso garrantzitsua da guretzat. Lagunak aurrean izateak tentsio puntu handia exijitzen du, eta horregatik gogoz aterako gara tabladura. □

Jubilatuak Castejonera dijoaz gaur egun pasa

JUBILATU Etxeak egun pasa antolatuta du Castejonera. Gaur goizean goiz irten eta inulabar aldera bueltatuko dira Hernanira. Jubilatu Etxeak egun pasako bidaia asko antolatzen ditu urtean eta arrakasta handia izaten dute.

Junta aldaketa bazkaria
Bestalde, Jubilatu Etxeko junta aldatu berria da eta etzi, larunbata, bazkaria egingo dute junta zaharrak eta berriak. Manolo Fernandez da Jubilatu Etxeko lehendakari berria, otsaila ezkeror. □

MENDIRIZ MENDI

Pirineoetarako izen ematea astelehenean bukatzen da

- Estos-eko aterpetik Clarabide eta Bardamina mendiak igotzea da asmoa.

MENDIRIZ Menditik Estos-eko refujiora dijoaz maitzaren hasierako zubia pasatzera. Asmoa Clarabide (3020 metro) eta Bardamina (3083 metro) mendiak igotzea da. Irteera maitzaren lean, gaur zortzi, goizeko 06:00etan Atsegindegitik, eta buelta maitzaren 4ean.

FEDMEko federatuentzat 90 euro da bidaia eta EMFko

federatuentzat 120 euro (Mendiriz Mendiko bazkide ez direnek 10 euro gehiago ordaindu behar dituzte). Izen ematea Mendiriz Mendin egin behar da gaur, bihar edo datorren astelehenean, arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara.

Mendiriz Mendik jakinarazi duenez, beharrezkoa da Kranpoiak eta pioleta eramatea elurretarako. □

Kinto bazkariak larunbata eta igandean

DATORREN larunbatean 52ko kintoek urteroko festa egingo dute. Bazkaritarako izen ematea Rioja edo Aralar tabernetan egin behar da.

Igandean, berriz, 44ko kintoek dute meza 12:30etan

Juan Bataiatzailea parrokiaren hildako kintoen omenez, eta bazkaria 14:00etan Fagollagan. Joan nahi duten kintoek Juan Ayerbe (943 551989) edo Antonio Perezi (943 554630) deitu. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- Eguez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793
- Gaez: Oa Usurbil. Poligono 1, 1 ☎ 943 376076

IRAGARKI MERKEAK

Esperientzia duen pelukerak Hernani inguruan lan egingo luke. Deitu: 637 09 83 24

Martxan dagoen Pub bat traspasatzen da Kardaberaz kalean. Deitu: 943 55 06 18

18-28 urte bitarteko mutil eukalduna behar dugu Hernaniko taberna batean lan egiteko. Interesatuak deitu: 943 55 26 46 - 658 750 896

Urbietako kalea 6 - Tezkerra

Tel.: 943 55 74 58 / 656 77 30 10
urbietafisioterapia@hotmail.com

ZINGI-ZANGA
Jatetxea
Eguneko menuak
Asteburuan afariak
Florida 54
☎ 943 33 03 97

OIALUME ZAR SAGARDOTEGIA

Asteartetik larunbatera zabalik.
943 55 29 38
OIALUME AZOIA